

# Ostadarra eskuetan

*Ostadarra gure eskuetan izango dugu gaurko  
esperimentuari esker.*


*Egun eguzkitsu batean egin behar da!*

## Behar dituzu

- Ontzi bat ur
- Ontzia baino txikiagoa den ispilu bat
- Paper zuri bat

## Zer egin

1. Bete ontzia urez, eta sartu ispilua barruan.
2. Eguzkiak eman diezaiola ispiluari, eta zuk, bitartean, eutsi tinko paper zuriari, ispiluaren aurrean, irudian agertzen den gisan.
3. Ostadarraren koloreak ikusiko dituzu zure eskuetan duzun paper zurian!





### Zer gertatu da?

Argia osatzen duten 7 kolore nagusiak banatu egiten dira ur-tanta zeharkatzean. Ispiluari esker, kolore horiek paperean jaso ditzakegu.

Euria egin ostean, adibidez, airean ur-tantak geratu badira, eta eguzkia ateratzen bada, ostadar zoragarria ikusten dugu zeruan!